



ARDURADUNA: URDANETA IKASTETXEA

PARTAIDEAK: JUBILATUAK, URDANETA, AEK, EGUNEKO ZENTRUA, UMORE ONA ABESBATZA

Norentzako antolatua: Herritarrentzako orokorrean.

Gizonezkoak

- Jubilatua: 11

- Euskara Eskolak: 3

- Urdanetako Ikasleak: --

Emakumezkoak

- Jubilatua: 22

- Euskara Eskolak: 9

- Urdanetako Ikasleak: --

Hartzailearen adina: Haurrak Nerabeak Gazteak Helduak Nagusiak

DATA: Otsailaren 4an

HELBURUAK:

- Belaunaldien arteko hurbilketa

- Euskara bultzatzea

- Ohiturak mantentzea

- Euskal kulturarekiko errespetua eta zaletasuna lantzea

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Saioak plazan eta kalean, Eguneko zentroan eta Jubilatuenan

BALIABIDEAK:

Materialak: koplak, abestiaren CDa eta musika aparatua

Giza-baliabideak: Irakasleak

BALORAZIOA:

Zuzenean animatu genituen Abesbatza eta Euskara Eskola Taldeak parte hartzea, eta horrela Euskararen presentzia eta herriko tradizioak bultzatu Jubilatuenan (gure barneko helburua).

Ekintza polita izan zen. Parte hartu zutenak gustora.
Nahiz eta aurretik bilera egin, Urdanetakoekin koordinazio akats batzuk izan genituen, adibidez: Elkartzeko lekua aldatua, koplen abesti ezberdinak, etab.
Ikastolak hartu zuen ebaluazioa eta argazkiak bidaltzeko ardura

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Koordinazioa hobetzeko: Abesti bera izatea, ongi lotzea elkartzeko gunea, etab.

2011-2012 IKASTURTEA



ARDURADUNA: URDANETA IKASTETXEA

PARTAIDEAK:

- Goierriko Goiztiri AEK: Jubilatuen taldea
 - Jubilatuen Elkarte: Euskara taldeko eta Abesbatzako jubilatuek
 - Urdaneta Ikastetxeko L.H.: Ikasle eta irakasleak

Nori zuzentzen zaio: Herriari oro har

Gizonezkoak % 10 Emakumezkoak % 90

Hartzailearen adina: Haurrak Nerabeak Gazteak Helduak Nagusiak

DATA: Otsailaren 3a

HELBURUAK:

- Belaunaldien arteko hurbilketa indartzea.
- Euskara bultzatzea.
- Ohiturak mantentzea.
- Euskal kulturarekiko errespetua eta zaletasuna lantzea

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Urdanetako eskolako haurrek Santa Ageda bezperan antolatutako kantu emanaldian parte hartzera gonbidatua izan zen Jubilatuen euskara taldea. Eskola beraren azpiegiturak eta ikas metodologiaren antolakuntza ikusi ostean atsedean lekuan abestu ziren koplak umeekin batera.

BALIABIDEAK:

Materialak: Koplen fotokopiak, abestiaren CDa eta musika aparatua.
Baliabide pertsonalak: Irakasleak.

BALORAZIOA:

Gustora egon dira. Eguraldi txarra dela eta, kalera irten beharrean eskolan bertan koplak abestea erabaki da. Modu honetan, jubilatuen euskara taldekoen bisita aprobetxatu da beste ekintza bat txertatzeko: 5.- Eskolak bisitatu, eskolako azpiegiturak eta ikas metodologiaren antolakuntza hauei erakutsiz.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Jubilatuak Urdaneta Ikastetxera joan behar izateak traba suposatzen du, eta euskara taldeko 4 pertsonak besterik ez zuen parte hartu. Aste bukaeratan tokatzen denean nola egin edo beste egun batean egiteak merezi duen birplanteatu egin behar da.

OHARRAK

http://txikiweb.urdaneta.ikastetxea.net/Txikiweb/Adriana_Maddi_eta_Uxue/Santa_Ageda/Santa_Ageda.html

2012-213 IKASTURTEA



ARDURADUNA: Urdaneta Ikastetxea eta Jubilatuen zentroa

PARTAIDEAK: LH osoa (350), Jubilatuen Etxeko Euskara eskola taldea (10 emakume) eta Umore ona abesbatza (35 - 10 gizon)

Norentzako: komunitate osoarentzako

Gizonezkoak % 40 Emakumezkoak % 60

DATA: 2013ko otsailaren 4a

BALIABIDEAK:

Giza baliabideak: zuzendaria eta abeslariak

Materialak: Kopla idatziak, makilak, ibilbidea

Difusioa: Urdaneta barneko telebista programarako grabatzeko tresnak eta erreportariak.

BALORAZIOA:

Esperientzia oso atsegina eta gustokoa izan da partaideentzako

Belaunaldien arteko esperientzia partekatua izan da, helburu bateratu batekin: euskal kulturaren ohiturak indartzeko eta aldi berean, eguneko zentrokoei ekitaldi alaia eskaintzeko, esperientziaren partaide bilakatuz.

Ekintzaren zabalpena Urdanetako eskola-prentsan eta "txiki web"en bitartez egin da, baita GITBren bitartez ere, Urdanetako zuzendariak deituta.

Ekintza antolatzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko Urdanetako zuzendariak, Jubilatuen zentroko euskara eskolako, abesbatzako eta batzordeko ordezkariak eta gizarte hezitzaileak bilerak egin dituzte. Hau oso positibotzat hartu da ekintza hobetzeko.

Ebaluazio-orri bateratua egingo da hemendik aurrera.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Ibilbideko zebra-bideak Udaltzainek zaintzea proposatzen da.

Zuzendaria ez hastea talde osoa bildu arte. Horretan inplikatu talde bakoitzeko ordezkariaren bat.

Ibilbide osoa seinalizatu, bakarrik ez gelditzeko guneak.
Trikitixaren bitartez ekintza aberastu (hau zaila da ez baitago Jubilatuen zentroan horrelako talderik).

2013-2014 IKASTURTEA



PARTAIDEAK: Jubilatuen, Goierriko Goiztiri AEK, Urdaneta Ikastetxea

DATA: 2014ko otsailaren 4a

HELBURUAK:

- Belaunaldien arteko hurbilketa indartzea.
- Euskara bultzatzea.
- Ohiturak mantentzea.
- Euskal kulturarekiko errespetua eta zaletasuna lantzea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Santa Ageda ohitura mantenduz, bezperan koplak zaharrak abesten dituzte Urdaneta Ikastetxeko haurrek, AEKn euskara ikasten duen jubilatuen taldearekin batera. Saioak plazan, kalean, Eguneko zentroan eta Jubilatuenen izaten dira.

METODOLOGIA ekintza antolatua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Urdaneta Eskolak antolatutako Santa Ageda bezperako kantu emanaldian parte hartzeri gonbidatu zen Jubilatuen euskara taldea. Eskolako ikasleekin elkartu eta Ordiziako kaleetan Euskal Herriko ohitura zaharrak jarraitzeko asmoarekin koplak kantuan aritu ginen.

BALORAZIOA:

Urtetik urtera erosoago sentitzen dira. Parte-hartzaile guztien harrera oso ona izan zen.

2014-2015 IKASTURTEA



ARDURADUNA: KIMETZ EMAKUMEEN ELKARTEA

PARTAIDEAK: Zuhaitziko jubilatua, Goiztiri AEK eta Urdaneta ikastetxea
Partaideen kopurua:___ Gizonezkoak %___ Emakumezkoak %___

Hartzailearen adina: Haurrak(0-12) Nerabeak(13-18) Gazteak(19-40)
Helduak(40-60) Nagusiak(+60)

DATA:

2015eko otsailaren 4a

HELBURUAK:

- Belaunaldien arteko hurbilketa.
- Euskara bultzatzea.
- Ohiturak mantentzea.
- Euskal kulturarekiko zaletasuna eta sentsibilitatea lantzea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Santa Agata ohitura mantenduz, bezperak koplak zaharrak abesten dituzte Urdaneta Ikastetxeko haurrek, AEKn euskalduntzen ari diren Zuhaitziko jubilatuei zein langabetu-etorkin taldeak. Saioak, plazan, kalean, Eguneko zentroan eta Jubilatuen izaten dira.

<http://goiztiri.blogspot.com.es/2015/02/agate-deuna-bezperan-kantuan-aritundira.html>

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Zuhaizti zentroa jartzen da gurekin harremanetan. Batetik, euskalduntze taldea baita bertan. Horrez gain, euskaltegian ere gonbidapena zabaltzen da eta eguerdi-arratsaldeko taldeak bertaratzen saiatzen gara.

BALIABIDEAK:

Entseguak egiten dira.

BALORAZIOA:

Oso gustura eta eroso sentitzen dira. Lukusin plazan intzidentzia bat izan genuen (balkoi batetik arrautza bota baitziguten) baina oro har oso ondo. AEKtik gainera, langabetu taldeak eta etorkin taldeak ere parte hartu zuten eta aurrez finkatutako helburuak lortzeko baliagarria izan da.

Aurretik antolatuta zegoen bezala egin dugu.

Aurten eguraldi txarra zela eta HHko ikasleek ez dute parte hartu.

Koplak garaiz banatu ziren eta dena idatziz bidali zen: topaguneak, ordua, geldiuneak, ibilbidea ... asko laguntzen du.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Geldiuneak eta hauetako kokapena mantendu beharko ditugu

Oiangurenako Trikitilariak aurten ez dute parte hartu, eta aberasgarria ikusten da beraien parte hartzea hurrengo urteari begira.

OHARRAK Lukusin plazan kantaldia egin behar dugun kontuan hartu.